



# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 195. alea - 2015eko apirila


**Hauteskundeetan atarian;  
zer berri?**



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS**  
**Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN



RPS: 183/12

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A**  
**D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPIZKOA) ase.deba@teleline.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 229 466 - 618 644 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)

**Bordatxo**  
JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:  
- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak  
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea eta**

**kolaboratzaileak:**

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka,  
Ina Oartzabal, Koldo Aperribai,  
Lukax Dorronsoro, Izaro  
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite  
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider  
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane  
Aizpurua, Haika Aizpurua,  
Nekane Goikoetxea, Mattin  
Urbietia, Mikel Aizpurua,  
Debako Gazte Asanblada,  
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:**

Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:**

Erredakzio taldea

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEA**



**LAGUNTZAILEAK**



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA, ENKULTURAREN SAHARAK, Hizuntza Publikoaren Sailburuordaria, DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA, Viceconsejero de Política Lingüística



Gipuzkoako Foru Aldundia

# aurkibidea

04

**Kolaborazioa: Debako Gazte Asanblada ("Ibilbiderik gabeko helmuga").**

06-09

## HAUTESKUNDEAK

**Hauteskunde kanpainari aurrea hartu nahian, galdetegi bat bideratu diegu alderdiei**



10

## ELKARRIZKETA

**Euskal Memoria Fundazioaren izaeraz eta lanaz aritu zaigu Iñaki Egaña historialaria**



Aritz Loiola

15

## LABURTAK

**Debako Arte Eskolak prest du arte grafikoaren espazio berritua, Zuhaitz Eguna, kirolak...**



16-17

## KORRIKA

**"Euskahaldun" lelopean burutuda 19. Korrika eta herrian harrera beroa egin genion. Irudi-bilduma osatu dugu**



Ander Salegi

18

## ZERBITZUAK



## Ibilbiderik gabeko helmuga

Garaiak aldatzen doazen heinean, gure inguruko egoerak guztiz ezberdinak izan daitezke eta, askotan, nire buruari galdetzen diot: egoera hori aldatzea nire eskuetan ba al dago?

Argi dago etorkizun ilun bat dugula gerturatzeaz, egunkaria irakurtzea besterik ez dago. Komunikabideek berri txarrez alaitzen dizkigute egunak: krisia, gerrak, ustelkeria... guztion ahotan dauden gaiak dira; baina, nola argitzen joan hain beltz entzuten diren hitz hauek guztiak?

Gaztea naiz eta gazte bezala indartsu sentitzen naiz, indartsu eta itxaropentsu, etorkizuna gure beharretara irauliko dugun itxaropenarekin. Hauek izango dira nire etorkizuneko bidaiaren hasierako ezinbesteko armak. Itxaropenak sinesmenarekin bat egiten duelako, sinesmenik gabe helburua lortzerik ez baitago.

Gazteok irrika ezberdinez beterik dugu burmuina eta askotan pentsaera hutsean gelditzen dira; irrika horiek errealitate bihurtuko dituen giltza magikorik, berriz, ez dago; beraz, irtenbide bat asmatu beharko dugu gure burmuina ondo estutu eta zuku gozo bat dastatzeko.

Helburu guztiek planteamendu bat behar dute, bestela amets huts izango dira, eta planteamendu bat burutzeko antolakuntza ezinbestekoa da. Horregatik, nire irrikak partekatu eta landu ahal izateko leku baten bila hasi nintzen.

Entzunda nuen herri bakoitzak Gaztetxe izeneko erai-kin bat zuela eta bertan belaunaldi ezberdineko gazteek, batu eta beraien irrikez eta proposamenez eztabaidatzen zutela, gero hauek nola gauzatu erabakitzeke. Honek interesa sortu zidan eta bertara gerturatzeraz bultzatu ninduen.

Ez ziren momentu errazak niretzat, familia arazoak, ikasketak alde batera utzita... burua non kokatu ezinik nenbilen. Hamabost urterekin noraezean zebilen mutiko bat nintzen, zer egin ez nekiena, hutsune bat nuen, bete beharreko hutsune bat.

Astebururo bezala, lagunak "Elgora" zihozten, beraien paradisura, hori bai, alkoholez, esku luzez, drogez eta istiluz

inguraturiko paradisua. Ez nuen gogorik bertara joateko eta bakarrik geratu nintzen, asper-asper eginda. Honekin ez dut esan nahi parrandak ez ditudala gustuko, baina bai ez dizkigutela arazoak konponduko eta irtenbide bat bilatu nahian herrian geratu nintzen.

Etixerantz nindoala plazan joko batzuk zeudela konturatu nintzen, gazteentzako, nagusiagoentzako, umeentzako, denentzako jolasak. Bertara gerturatu nintzen, baina ez nuen ausardiarik jolasteko eta halako batean 23 urte inguruko gazte bat hurbildu zitzaidan jolastera animatuz. Hantxe pasatu nuen arratsalde osoa, jendea ezagutuz, jolasak eginez. Bukatzean ez nuen etxera joateko gogorik eta plazako banku batean eserita geratu nintzen pentsakor zeruari begira. Hausnarketa txiki baina sakon bat egin nuen momentu horretan. Plazan ikusi nuen guztia ez ziren jolas hutsak izan, joko horiek antolatuta zituzten gazteek beraien borondatez kaleraturiko beste hainbat ekintzetako bat zen eta helburu bat zuten, herriko jende arteko elkarlana, eskuzabaltasuna, elkartasuna...

Bat-batean, jolasetako material guztia jasotzen zeuden bitartean, gazte bera gerturatu zitzaidan eta beraiekin afaltzera joatera gonbidatu ninduen. Plan horrek izugarri erakarri ninduen egun aspergarri horri amaiera on bat emateko, baita buruan nuen ideia guztiak askatzeko ere; eta lotsa handiz, baina, baiezkoa eman nion. Hortik aurrera dena aldatuz joan zen, bete beharreko hutsune hori poliki-poliki tantaz tanta betetzen zihoan. Tantak gero eta potoloagoak, hutsunea gero eta txikiagoa.

Askotan iparrorratzak norabidea adierazteko zain gelditzen gara eta ez gara ohartzen gure helmugara eramango gaituen orratza gure baitan dagoela.

Hausnartu, sortu, lortu!  
Bizitzaren borroka borrokatu!  
Sufrituz zein gozatuz...  
Zure ipuina marraztu!

Lander Fernandez eta Beñat Eskudero

**ISABEL FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behean. 20820 DEBA  
943 029 186

**HAZKUNE**  
FRUZA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

*Calbeton*

JATETXEA

**Agusín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOAN  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**sasoi**ko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersandi, 14      943 19 24 42      sasoiako@hotmail.com

## Txipdun edukiontzi bidezko hondakin bilketa aukeratu dute herritarrek

Deban erroldatutako bizilagunek txipa duten edukiontzien aldeko hautua egin dute. Martxoaren amaieran burutu zen hondakinak biltzeko sistema aukeratzeko herri galdeketa. Guztira, 16 urtetik gorako 4.618 herritar zeuden bozketara deituta eta horietatik 2.516 izan ziren botoa eman zutenak. Parte-hartzea handia izan zen, beraz, %54,48koa.

Herritarrek bi sistemaren artean aukeratu behar zuten galdeketa: bilketa sistema mistoa eta txip bidez kontrolatutako edukiontzien sistema; mistoaren aldeko botoak 339 izan ziren (%13,47) eta txipdun edukiontzien alde parte-hartzaileen %86,16k egin zuen. Boto zuri bat eta zortzi baliogabe ere izan ziren.

Udalak eta udalean ordezkariak duten alderdi guztiek osatutako Hondakin Batzordeak antolatu eta bermatu dute galdeketa. Aurrez azaldu zuten bezala, udalbatzak galdeketa emaitza lotesle bilakatzeko herritar erroldatuen %25ak hartu behar zuten parte, eta muga hori gainditu egin da -bikoiztu ere bai, gainera-.

Hondakin Batzordeak galdeketa lortutako emaitzarekiko babesa adierazi zuen bozketa egunean bertan igorritako prentsa oharrean, bide batez prozesuan eta herri galdeketa parte hartu duten herritarrei eskerrak emanek.

### %60ko birziklatze tasa helburu

Herri galdeketa otsailetik abian egon den parte-hartze prozesuari amaiera emateko urratsa izan da. Debako Udaletik gogorarazi dutenez, prozesu horretan hondakin gaur egungo

egoeraren hausnarketa batetik abiatuta, hondakinak biltzeko sistema ezberdinak ezagutu eta landu dira, Debarako egokiek izan daitezkeen eredu inguruko eztabaida sustatuz.

Prozesua "Denon artean %60ra! Hobetzeraz goaz" lelopean burutu da. Hori baitzen, azken finean, erronka nagusia. Alegia, gaur egun herritarrok sortzen ditugun hondakin %25a jasotzen da sailkatuta, baina birziklatze tasa hori gutxienez %60ra igotzea lortu nahi da.

Debarareneko Mankomunitateko Arcadio Benitez presidentek aipatu duenaren arabera, "materia organikoaren edukiontzia udalerrira guztietara hedatuz eta herritarrek biohondakin bilketan parte hartuz zalan-tzarik gabe lortu ahal izango da %60ko helburua".

Debako kontsultaren emaitzak ikusita, Benitezek baieztatu du herritarrek materia organikoaren bilketa txip bat duen edukiontzien bitartez gauzatuko dutela, eta txip horri esker, parte-hartzeari buruzko datuak lortuko direla. Era berean, errefusa gris koloreko edukiontzi baten bitartez bilduko da, eta edukiontzi horrek ere txip bat izango du. Papera eta kartoia, ontzi arinak eta beira orain arte bezala bilduko dira edukiontzietan.

Mankomunitatearen arabera, gaur egungo eta hemendik aurrerako erronka nagusia herritarrek kontzientziaztea izango da, baita haien parte-hartzea handitzea ere. Horretarako, informazio eta sentsibilizazio kanpaina ezberdinak burutuko ditu, partaidetza sustatu eta bilketaren nahiz birziklapenaren emaitzak hobetzeko jardunbide egokienei buruzko informazioa emateko helburuz.



**Hazirik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
Tlf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com

**kutxa**  
kutxabank

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

**URDAITEGIA**  
**AITTOLA**  
**HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**  
**Azoka**  
**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

# Udal eta foru hauteskundeak 2015



**Ate-joka** ditugu udal eta foru hauteskundeak; bozketa eguna hilabete barru, maiatzaren 24an, izango da. Dagoeneko zabalik dago posta bidezko bozka eskatzeko epea –maiatzaren 14a arte luzatuko da–, eta hauteskunde kanpainarako egutegia ere finkatuta dago: alderdiek maiatzaren 8tik 22ra aurkeztu beharko dituzte euren hauteskunde-programak.

Kanpaina horri aurrea hartu nahi izan dio, ordea,

**Aurtengo hauteskundeetan murgildu aurretik, begirada duela lau urteko hauteskundeetan jarriko dugu, memoria pixka bat freskatze aldera.**

2011ko udal eta foru hauteskundeetan Alternatiba Eraikitzen izan zen Debako alderdi bozkatuena eta legealdi honetan bost zinegotzi izan ditu, lehen indarra izanik. Silverio Urkiri Beitia izendatu zuten alkate, baina haren kargua Maider Zubikaraik hartu zuen gero.

Eusko Alkartasunak bi zinegotzi lortu zituen 2011n, lehen indarra izateari utzita. EAJk hiru ordezkari izan ditu legealdi honetan. Ezker Batua-Aralar koalizioak bi zinegotzi lortu zituen, eta Itziar Herria Sortzenek zinegotzi bat. PSEk eta PPK ere aurkeztu zituzten hautagaitzak, baina ez zuten ordezkariarik lortu udal gobernuan.

**Lau urte igaro dira harrezkero, eta aldaketa edo berritasunak sumatzen dira aurtengo hauteskundeetarako:**

**EH Bildu koalizioa**, adibidez, lehenbizikoz aurkeztuko da aurtengo deialdian –Sortu, EA eta Aralar hartzen ditu bere baitan–. Hortaz, azken lau urteotan Aralarrek eta Ezker Anitzak osatutako koalizioak ez du bere horretan aurrera jarraituko. Ale hau inprentara bidean zegoen unean, Gipuzkoako **Ezker Anitzak** jakinarazi zuen aurrean ez duela

**Berriketan**-eko erredakzio taldeak. Horretarako, ondoko orrialdeetan ikusiko duzuen galdetegia bideratu diegu gaur egun Debako Udalean ordezkariak duten alderdiei, baita lehenengo aldiz hautagaitza aurkezteko asmoa iragarri dutenei ere. EH Bildu, EAJ eta Debarren Ahotsa plataformaren hitzak jaso ditugu. Bestelako alderdi batzuei ere luzatu zaie, dena den, ale honetan euren erroka edo egitasmoen berri emateko gonbitea.

hautagaitzarik aurkeztuko Deban.

Hauteskundeetan lehenengo aldiz presente egongo den plataforma bat ere sortu da herrian; **Debarren Ahotsa** izena du, eta udal hauteskundeetarako kandidatura independente bezala aurkeztu du bere burua.

**Itziar Herria Sortzen** alderdiari dagokionean, ez du erantzun aldizkariaren galdetegia. Ale hau inprentara bidaltzean oraindik ere herrirako hautagaitzarik aurkeztuko ote zuen ezin argituta zebilela jakinarazi zion aldizkariari.

Aurreko legealdietan egin bezala, **EAJk** aurkeztu du dagoeneko bere hautagaitza.

**PSEk**, bere aldetik, zerrenda aurkeztuko duela jakinarazi du, Marta Gutierrez zerrenda-buru izanik. Baina alderdiaren iritzi, asmo edo errokkak ez ditugu jaso **Berriketan**-en. Gainontzeko alderdiei bideratutako galdetegi bera jaso zuen PSEk, baina hautagaiak euskara ez dakiela erantzun ziguten prentsa bulegotik. Beraz, aldizkariako irizpideei jarraituz, ez dugu haien testua euskaratu eta kaleratu.

**PPren** kasuan, bestetik, ale hau inprentara bidaltzean oraindik ere herrirako hautagaitzarik aurkeztuko ote zuen ezin argituta zebilela jakinarazi zion aldizkariari.

Horiek hala, EH Bildu, EAJ eta Debarren Ahotsa plataformaren esanak bildu ditugu ondorengo orrietan.

## Hirugarren hautestontzi bat, auzo-alkatea hautatzeko

Maiatzaren 24an, udalerrri gehienetan bi hautestontzi izango dira mahai bakoitzean: bat udal-hauteskundeetarako, eta bestea, berriz, batzar nagusietarako hauteskundeetarako. Urduñan, Hernanin eta Deban, kasua bestelakoa da. Izan ere, hirugarren hautestontzi bat izango da Itziarren auzo-alkatea hautatzeko helburuarekin.

Gobernu organoei dagokienez, Itziariko auzo udalak auzo-alkatea eta bost kideko auzo-batzordea izango ditu. Hauteskundeak ospatu bitartean, hiru kidez osaturiko batzorde kudeatzaile batek zuzendu du eratu berria den entitate txikia. 2011ko udal hauteskundeetan emaitzak kontuan hartuta izan ziren izendatuak Arantza Egaña Aldalur, Zigor Aizpurua



Eizagirre eta Iñigo Izagirre Urteaga, eta hiru horien lana izan da azken hileotan auzo udala kudeatzea.

Funtzionamendu hori hauteskundeak ospatzearekin batera amaituko da, maiatzaren 24an itziarrek bozka eman beharko baitute auzo alkatea eta bost kidez osatutako batzordea aukeratzeko.

## GALDETEGIA:

Honako eskaera hau luzatu genien gure herriko alderdi politikoei: eman, mesedez, zure taldeak hurrengo legegintzarako dituen asmo edo proiektuen berri puntu hauei, galdera zehatz hauei, labur erantzunez:

- 1.- Etxebizitza.
- 2.- Euskara. Badira urteak Debako Udala UEMAn sartu zela...
- 3.- Azpiegitura kulturalak. Kultur ekitaldietarako edo erabilera anitzeko aretoa non, noizko?
- 4.- Itziar. Auzo Udala sortu da; lehen urratsak egin dira. Uneotan zer iritzi duzue gai honekiko? Orain arteko prozedura, osaketa, aurrera begirako funtzionamendua... Zure taldeak auzo-alkatezarako hautagaiarik aurkeztu behar duzue?
- 5.- Hondakinak. Ezusterik bai herri galdeketa erantzutekin?
- 6.- Europar jendartea eraldatzen ari da, baita Deban ere. Horren adibide da, esaterako, etorkin-kopurua handitzen ari dela... Integrazioa, bizikidetzeta, elkartzasuna... hizkuntza, hezkuntza, diru-laguntzak... zer politika sustatu nahiko zenuke?
- 7.- Beste zerbaitek nabarmendu nahiko zenuke? Zer?



### 1.- Etxebizitza.

Gure eredia alokairu soziala da, eta zentzu horretan egingo dugu lana. Luzaroko eraikinaren proiektua garatzea eta Osion alokairu soziala bermatzea izango da gure helburua; eta, bestalde, etxe hutsei irtenbidea emateko ikerketa.

### 2.- Euskara.

Legegintzaldi honetan hizkuntza irizpideak onartu ditugu, urrats garrantzitsuak, eta aurrera begira ere euskararen normalizazioan urratsak ematen jarraituko dugu, udalaren barne planarekin, euskaraz sortutako kultura plazaratzen, arnaguneak indartzen, eta abar.

### 3.- Azpiegitura kulturalak.

Legegintzaldi honetan herriko gune eta espazio diferentek erabiliz, kulturaz gozatzeko aukera izan dugu, urte guzti-ko agenda kulturalarekin. Hurrengo

legegintzaldian behar honi erantzutea izango da gure erronka.

### 4.- Itziar.

Erabakitze eskubidean oinarritutako prozesua izan da Itziarkoa, eta orain elkarbizitzarako tresna izango den auzo udala eraikitzea izango da erronka. Alkategaiari dagokionez, beraien proposamenak kontuan izango ditugu.

### 5.- Hondakinak.

Oso pozik gaude eman dugun prozesuarekin eta emaitzarekin, gutxienez %60ko birziklatze tasa bermatuko duen sistema izango dugulako gure herrian, eta hori zen gure helburua, eta orain herritarrek erabakitakoa ezarri behar dugu.

### 6.- Jendartea eraldatzen ari da...

Deba kultur anitza eta herritarren Deba izatea nahi dugu, eta zentzu honetan sal-

buespenik gabe, pertsona guztien esku-bide sozialak bermatzea eta herritar bakoitzari existentzia duina bermatzeko adinako baliabideak ematea izango da gure lana.

### 7.- Besterik?

Bai, Deba herritar guztiok eta guztiontzat eraikitzea izan da gure helburua, kudeaketa arduratsua eta gardena bitarteko. Egun udal altxortegia 2011n baino egokiago, zorrik sortu gabe, eta herrian lehentasunezko beharrei erantzuten dien inbertsio garrantzitsuak eginez bukatzen dugu. Bestalde, 9 proiektu parte-hartze prozesuen bitartez garatu ditugu, eta legegintzaldi honetan 3 herri galdeketa egon dira lehenengo aldiz Deban. Hurrengo legegintzaldian, demokrazia zuzenean sakontzea izango da erronka, herriari hitza eman eta Deba berritzen jarraituz.

## Hautagaiak:

Maidar Zubikarai - Aimar Lasa - Itziar Irizar - Jose Luis Albizu - Eli Urteaga - Axier Oñederra - Arantxa Egaña - Lander Aznal - Ibone Iriarte - Antxon Etxeberria - Aintzane Mugika - Ina Oiartzabal - Alaitz Markina - Laura San Martin - Xabi Ziaran - Juan Mari Gabirondo - Xabier Zabala.

## Galdetegia:

### 1.- Etxebizitza.

2.- Euskara. Badira urteak Debako Udala UEMAn sartu zela...

3.- Azpiegitura kulturalak. Kultur ekitaldietarako edo erabilera anitzeko aretoa non, noizko?

4.- Itziar. Auzo Udala sortu da; lehen urratsak egin dira. Uneotan zer iritzi duzue gai honekiko? Orain arteko prozedura, osaketa, aurrera begirako funtzionamendua... Zure taldetik auzo-alkatetzarako hautagairik aurkeztu behar duzue?

DEBA  
HAZI  
ARAZI



### 1.- Etxebizitza.

Dagoeneko martxan dauden Elizburuko etxebizitza tasatuz gain, Osio eta Amillagako planeamenduei helduko diegu. Hortaz gain, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako akordioarekin eskola zaharraren lurzorua erabiliko dugu babestutako alokairurako etxebizitzak egiteko.

### 2.- Euskara.

Udal eta kale esparruan euskara bultzatzeko beharrezkoak diren pausu guztiak emango ditugu. Udalbatzak onartutako plan estrategikoa burutuko dugu eta Udala eta UEMAn arteko elkarlana indartuko dugu. Benetako normalkuntza lortzeko, euskara ideia politikoen gainetik egon behar da.

### 3.- Azpiegitura kulturalak.

Kioskoaren ingurunea suspertzeko ideia lehiaketa bat antolatuko dugu.

Herritarren ideiak jasoz, eremu honetan kultur eta kirol ekintzak bultzatzeko azpiegitura praktikoa bat proposatuko dugu, Zumardiarekin integratuz Debako lekurik nabarmenetakoaren erabilera bultzatu egin behar da.

### 4.- Itziar.

Auzo Udalaren eraketak herritarren arteko gatazka arriskutsu bat sortu du. Herritarren parte-hartzea ez zen hasieratik bultzatu eta auzoen antolakuntza eredu epe luzean bideragarri izan dadin, guztion benetako partaidetza eta adostasuna lortzeko lan egingo dugu.

### 5.- Hondakinak.

2012an Bilduk Donostiatik Deban atez atekoa jarriko zela iragarri zenetik, guk alderdi bezala eta herritarrek beraien aldarrikapenekin batera, gobernuak herri galdeketa deitzea lortu zen. Aspalditik argi zegoen

herritarrek bosgarren edukiontzi marroia nahi zutela eta argi geratu da galdeketa emaitzekin.

### 6.- Jendartea eraldatzen ari da...

Debara heltzen diren etorkinei atentzio berezia ematea garrantzitsua dela deritzogu, herrian ahalik eta azkarren eta erosoan integratu daitezten. Gure gizarte euskaldunetan eta bizitza moduan integratzea era naturalean egin behar da, beraien motibazioa eta desberdintasunen arteko errespetua ardatz izanik.

### 7.- Besterik?

Lantalde sendoa dugu, lan esperientzi desberdinetan aritzen diren pertsonen osatutakoa, herritarren interesak defendatu eta ideia berriak ekarriko dituen. Ingeniaritza, zuzenbide, ekonomia, hezkuntza eta gizarte ekintzetan trebatutako lantalde ezin hobea aurkezten diogu herriari.

## Hautagaiak:

Cristobal del Corte - Unai Lekube - Iñigo Cambroner - Arantza Kortabitarte - Beatriz Resa - Victor Garcia - Iñaki Mandiola - Maite del Corte - Maria Luisa Gainza - Iñaki Telleria - Maite Iruretagoiena - Javier Zalduegi - Jose Mari Iparragirre.



5.- Hondakinak. Ezusterik bai herri galdeketaren emaitzekin?

6.- Europan jendartearen eraldatzen ari da, baita Deban ere. Horren adibide da, esaterako, etorkin-kopurua handitzen ari dela... Integrazioa, bizikidetzak, elkartasuna... hizkuntza, hezkuntza, diru-laguntzak... zer politika sustatu nahiko zenuke?

7.- Beste zerbaitek nabarmendu nahiko zenuke? Zer?



## DEBAREN AHOTSA



### 1.- Etxebizitza.

Guretzat etxebizitza oinarrizko ondasun bat izateaz gain eskubide bat da. Zuzkidura etxebizitzaren proiektua martxan jarri eta babes ofizialeko etxeak eraikitzearen aldeko apustua egingo dugu, gazteentzako alokatzeko etxebizitzak gordez.

### 2.- Euskara.

Udala eta herritarren arteko harremana eta arreta euskaraz bermatu beharra dago eta udal langileek lanpostu-zerrendan ezarritako baldintza guztiak ez ezik hizkuntza-eskakizunak ere bete behar dituzte. Gure asmoa ez da ondo dabilean aldatzea.

### 3.- Azpiegitura kulturalak.

Kultura eskura izan behar dugu denok. Gure herrian kultur ekintza mota guztiak garatzeko toki egoki bat lortzeko

ahalegin guztiak egingo ditugu. Horretarako, udalak eta Kultur Elkarteak eskaintzen dituzten zerbitzuen azterketa eta berrantolaketa ezinbestekoa izango da.

### 4.- Itziar.

Elkarbizitza adeitsua bermatu eta herritar guztiak pozik utziko dituen behin betiko konponbidea behar dugu. Gure proposamena Itziar eta Itxaspe lurralde eremuetara mugatutako entitate txiki bat eratzea da, inposaketarik gabe eta akordioan oinarrituz, noski.

### 5.- Hondakinak.

Emaitzak ez gaitu ustekabe harrapatu, ezustea atez ateko bilketa sistema galdeketatik at lagatzea izan zen. Babesten dugun sistema herritarren gehiengoak erabaki duena da. Gure helburua gutxienez %60ko birziklatze tasa

lortu eta herria garbi eta txukun edukitzea da.

### 6.- Jendartearen eraldatzen ari da...

Idea, kultura eta pentsatzeko era desberdinetara irekiagoak izan behar gara. Pertsona guztien gizarte-ongi-zatea defendatzeko konpromisoa hartu nahi dugu, berdintasuna eta gizarteratzea bermatuko duten gizarite-zerbitzu publikoak eta gizarite-babesa sustatuz.

### 7.- Besterik?

Herritarrekin eta herritarrentzat egingo dugu lan. Ilusioaz gain, gardentasuna eta parte-hartzea dira gure oinarriak. Herri hobeto bat nahi dugu, enplegu aukera berriak eta berdintasuna bermatzen duten zerbitzu publiko sendoak. Hori guztia lortzeko funtsezkoa da herritarren parte-hartzea.

## Hautagaiak:

Pedro Bengoetxea - Aitor Salegi - Ane Egidazu - Marilu Albizu - Iñaki Esnaola - Maitena Arrizabalaga - Alberto Retolaza - Pili Rincon - Jose Mari Paredes - Maria Jesus Fernandez - Carmelo Arrizabalaga - Leire Baraiazarra - Felipe Vela - Corinne Bruguera - Iñigo Aperrribay.

## Iñaki Egaña: “Azken 50 urteotako gatazkaren ondorioak aztertu eta zabaltzeko helburua du Euskal Memoriak”

“Deklaratu gabeko gerra. Estatu-terrorismoa Euskal Herrian”. Izenburu hori darama Euskal Memoria fundazioaren bosgarren lan monografikoak. Argitalpenaren berri emateko saioa burutu zen Debako Agirre jauregian, martxoaren 11n, eta bertan izan zen Iñaki Egaña historialaria eta fundazioko kidea. Bere bisitak eskaini digu Euskal Memoriaren lan berria, izaera eta jarduna pixka bat hobeto ezagutzeko aukera.



Aritz Loiola

### Zein asmo edo helbururekin sortu zen Euskal Memoria? Zein urtetan?

Euskal Memoria fundazio bat da, 2009an jaioa. Beraz, erakunde gaztea da, 6 urtekoa hain zuzen. Helburu ezberdinak izan arren, bi aipatuko nituzke: azken 50 urteotako gatazkaren ondorioak aztertu eta, bide batez, zabaldu. Bi helburu hauen izenburuak ikertzea eta dibulgatzea izango lirateke. Horretarako Dokumentazio Zentro bat jarri dugu abian. Ez gara agente politiko bat, ezta memorialista ere.

### Zer nolako harrera izaten ari da fundazioa Euskal Herrian?

Bazkideek sostengatzen dute fundazioa eta bazkide ugari dugunez herriz herri eta herrialdez herrialde, ona, erantzungo nuke. Oso ona. Ate gehienak zabalik izan ditugu, orain arte behintzat.

### Herri baten historia biltzeko bidean, ezinbestekoa da protagonisten aldetik laguntza izatea. Herritarren partetik zer nolako harrera izaten duzue oro har? Oroitzeko eta bizipenak partekatze prestutasunik ba al da Euskal Herrian? Edo, aitzitik, nahiago izaten da historiako pasarte batzuk ahaztea?

Historiaren berreskuratze prozesuan ez gara lehenengoak izan. Beraz, iritzi kontrajarriak egon daitezke, garai ezberdinen eta eragileen arabera. Nire esperiantziaren haritik, zera esango nizuke: gertaerak oso bortitzak eta gertukoak direnean, mesfindantzak eta zalantzak sortzen dira. Denborak lasaitzen ditu gertaerak eta bereziki pertsonak. Adibide bat jartzearren: gerra zibileko zenbait protagonista 50-60 urte pasa ondoren hasi ziren horri buruz hitz egiten. Horrek arazo bat sortzen dizu, askotan berandu iristen gara. Horregatik jaio zen Euskal Memoria, gure historiaren ziklo bat amaitzear zegoen.

nean. Historiak oraindik “erretzen” zuenean. Guk kontatu behar dugulako geurea eta ez, ordea, etsaiek.

### Fundazioaren bosgarren liburuak gerra zikina du ardatz. Kontatuko dizkiguzu, mesedez, liburuaren nondik norakok edo zertzelada nagusiak hitz gutxitan?

Funtsean, azken 50 urte hauetan, Estatuak, bereziki espainiar estatuak, Euskal Herrian izan duen eragina. Indarkeriaz ari naiz. Garai batean “gerra zikinari” Estatu terrorismoa deitzen genion. Bada, hain zuzen, hori da. Eta Estatuaren eskua oso zabala izan da. Dakigun bezala, zabalegia: hilketak, mehatxuak, leherketak, propaganda beltza... Horretan, garai ezberdinak egon dira gure ustez eta modu ezberdinak ere bai. Hori da aztertzen duguna. Oro har, 1.500 atentatu zuzen, 800 pertsonen kontra, eta 83 hilketa. Ekintza gehienak zigorgabeak izan dira.

### Euskal Herriko memoria historikoaren dokumentazio zentro (gune) iraunkor bat sortzeko erronkarekin egiten du lan fundazioak. Zelan doa prozesua? Badao forma hartzen proiektua?

Ba bai. Azken zertzeladak ematen ari gara. Aste gutxi barru prentsaurreko bat konbokatuko dugu Dokumentazio Zentroa aurkezteko. Fundazio pribatua izan arren, gure helburua publikoa da eta, horregatik, ditugun dokumentu guztiak herriaren esku jarriko ditugu.

### Beste zerbaite nabarmendu nahiko zenuke, Iñaki?

Neurri handi batean, urteak ditugu eta horregatik gure gertuko historiaren pasarte batzuk berreskuratu nahi ditugu. Lehenbailehen. Baina lana ez da hemendik gutxira amaituko. Bide horretan hurrengo belaunaldietarako etxea ari gara eraikitzen. Haiei dagokie jarraipena eta, ahal bada, bukaera. Eten gabeko kontua da. Eta noski azken aipamen bat, Debara etorri naizen bakoitzean herrian izan dudana harrera. Oso ona. Eta hori eskertzekoa da. Beraz, mila esker zuei.



Aritz Loiola



Berriketan gaztea

2015eko apirila  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrear Sortua.

## KULUNKA DANTZA



Debako balleteko taldea da Kulunka Dantza. Ehun pertonez osatuta dago eta bederatzi taldeetan banatuta daude. Alaitz Izaga da taldeko zuzendaria –dantzaria ere bada–.

Ballet klasikoaren pausuak oinarri hartuta, beste dantza mota batzuk ere egiten dituzte taldean, hala nola garaikidea, modernoa, jazza...

Urtero-urtero, dantza taldeko kideek hainbat ikuskizun aurkezten dizkigute, bai Deban eta baita beste herri batzuetan ere.

Dantzaren nazioarteko egunari omen eginez, adibidez, barra klasikoa egiten da urtero. Aurten apirilaren 25ean izango da hitzordua, eguerdi partean, portuko pasealekuan. Klasean landutakoak oinarri hartuta, barran hainbat ariketa egingo dituzte dantzariak, ohiko dotorezia erakutsiz.

Pixka bat beranduago, eguerdiko ordubietan, flashmoba egingo da herriko plazan. Koreografia ikasteko aukera izan dute herritar guztiek, ekimenean parte hartzeko.



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)


Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



English Academy

**NORTH  
STREET  
ENGLISH**



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba



# ELKA RRIZ KETA

**Xabier Artola:**  
“Korrikako  
lekukoa  
eramateak  
esanahi  
sinbolikoa du”



19. Korrika amaitu da dagoeneko. Elkarlanean antolatzen da beti euskararen aldeko lasterketa herrikoa, eta guk oraingoan Xabier Artola elkarriketatu nahi izan dugu. Korrikako Gipuzkoako arduraduna da Artola, eta hainbat ediziotan aritu da Korrikaren antolakuntza lanetan. Bisitan etorri zitzaigun Mendatarara.

## **Noiztik ospatzen da Korrika?**

Lehenengo aldiz 1980an ospatu zen. Hasieran urtero ospatzen zen, baina gerora bi urtean behin ospatzea erabaki zen.

## **Zer helbururekin ospatzen da Korrika?**

Korrikaren helburuak bi dira: garrantzitsuena euskara bultzatzea eta, batez ere, erabilpena gizartean zabaltzea; eta bestea, ekonomikoki AEK bideragarria izatea, Korrikak balio ekonomikoa du eta.

## **Noiz hasten zarete Korrika antolatzen?**

Korrika bukatu eta hurrengo hilabetean, antolatzen duten pertsonak zenbaezinak dira.

## **Zergatik eramaten da lekukoa?**

Oso esanahi sinbolikoa du: herriz herri eta eskuz esku euskara mantentzea. Lekukoaren barruko mezua pertsona famatu batek idazten du, baina inork ez daki nor den.

## **Lekukoa berdina da urtero?**

Ez. Lehenengo lekukoa Remijio Mendiburuk egin zuen (tapa bat zuena mezua sartzeko), baina hura hondatu zenean, Gorriti artistari eskatu zitzaion erreplika bat egitea (erroska duena).

## **Aurten zeri edo nori egin zaio omenaldia?**

Neguan omendu zen Durangoko Azoka. Berez, Korrika

egin baino bi hilabete lehenago erabakitzen da nor omenduko den, baina aurten neguan erabaki zen.

Durangoko Azokak 50 urte bete baitzituen.

## **Aurten nondik nora eta zein egunetan burutu da?**

Urepelen hasi zen martxoaren 19an, eta Bilbon bukatu martxoaren 29an. Debatik hilaren 23an igaro zen.

AEK euskaltegia presente dagoen herrietatik pasatzen da lasterketa; beti bukatzen da hiriburu batean, eta hurrengo Korrika, aurrekoa bukatu den probintziako herri txiki batean hasten da.

## **Irteera eta helmuga nola aukeratzen dituzue?**

Beti hiriburuetan bukatu behar duenez, Euskal Herriko 5 hiriburuak txandakatuz joaten dira: Arabakoa, Gipuzkoakoa, Bizkaikoa, Nafarroakoa eta iparraldeko bat; eta irteera, lehen aipatu bezala, Korrika bukatu den hiriburuaren probintziako herri txiki batean hasten da hurrengo Korrikan.

## **Korrikako kanta nork konposatu du aurten? Taldea nola aukeratzen duzue?**

Aurtengoa zerbait berezia eta desberdina izan da. Aurten, **ahaldun** horren leloa eta auzo-laguntasuna adierazteko, ez diogu talde profesional bati eskatu. Aurtengo ediziorako kanta AEKren inguruan dabilzan musikariei eskatzea erabaki genuen.

# KORRIKA, ASTE SANTUA...

Hilabete honetan Korrika eta Aste Santuko oporrak hartu ditugu hizpide. Hona hemen ikasleei egin dizkiegun galderak eta jasotako erantzunak:

- 1.- Korrikan parte hartu zenuen? Norekin? Nondik nora?
- 2.- Hurrengo Korrikan parte hartzeko asmorik baduzu?
- 3.- Ospatzen al duzu Aste Santua?
- 4.- Hemen gelditzen zara ala kanpora joaten zara?
- 5.- Familiarekin ala lagunekin?



## INKESTA



### Mainer Korrius:

- 1.- Ez.
- 2.- Bai.
- 3.- Ez.
- 4.- Deban gelditzen naiz.
- 5.- Lagunekin.



### Kevin Loreto:

- 1.- Bai. Bakarrik. Debatik Mutrikura.
- 2.- Bai.
- 3.- Ez.
- 4.- Deban egoten naiz.
- 5.- Familiarekin.



### Bitor Garitaonandia:

- 1.- Ez.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Eskiatzera joaten naiz, Vieiara.
- 5.- Familiarekin.



### Maria Perez:

- 1.- Bai. Lagunekin, biribilgunetik dorrera.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Kanpoan, Bartzelonan.
- 5.- Familiarekin, gauza berriak ikusten.



### Oihan Bores:

- 1.- Ez.
- 2.- Ez.
- 3.- Bai.
- 4.- Deban.
- 5.- Lagunekin egoten naiz.



### Elene Arratibel:

- 1.- Ez.
- 2.- Bai.
- 3.- Bai.
- 4.- Itziarren egon naiz.
- 5.- Lagunekin irteten naiz.




### Nora Movellan:

- 1.- Ez.
- 2.- Bai.
- 3.- Ez.
- 4.- Deban.
- 5.- Lagunekin egoten naiz.



### Gorka Masach:

- 1.- Ez.
- 2.- Bai.
- 3.- Ez.
- 4.- Kanpora, Alemaniara.
- 5.- Familiarekin.




# DenBord-pasa

## SUDOKUA

					1		
	1	8		3	2		5
				7		6	2
4						5	
2			3	6			7
	7						4
1	3		9				
6			7	5		4	2
		4					

## LABIRINTOA



## QUIKITU 8 EZBERDINTASUNAK



### LAGUNTZAILEAK:



### BABESLEAK:



Debako Udala



### PRENTSA TALERRA 2014-2015

Maitte Iglesias  
Leire Amesti  
Maialen Beristain  
Sara Goikoetxea  
Janire Salegi

Itsaso Iciar  
Naia Agirregabiria  
Paola Inurrieta  
Olatz Irusta  
Aiora Zubizaray

Koordinatzailea: Joseba Agirreoa

## Debako Arte Eskolak prest du arte grafikoen espazio berritua

Beharrezkoak ziren egokitze lanak egin ostean, Debako Arte Eskolak Latsurregiko igoeran dituen lokalek itxura eta eduki berriak aurkezten dituzte dagoeneko. Espazioa eraberritu egin dute, eta bertan kokatu Artelekun zeuden serigrafia eta litografia tailerrak. Beraz, aurrerantzean arte grafikoko tailer guztiak hartuko ditu bere baitan Debako eraikinak: grabatua, litografia eta serigrafia, eta baita pintura ere. Bulego eta bilera aretoak osatzen dute egoitza.

Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Debako Udalaren nahiz Arte Eskolaren arteko elkarlanaren fruitu da. 240.000 euroko kostua eduki dute lanek.

Eraikina arte grafikoen egokitu ahal izateko, aurrez bertan kokatua zegoen nagusien eskola Astillero kalera pasa dute -liburutegiaren eta KZgunearen alborara-.

### Eskola erreferentea

1969an Oteizak hezkuntza proiektu bat abiatu zuen Deban. Herriarentzat garai haietan beste hezkuntza eredu bat bultzatu behar zela uste zuen, eta gazteei beste heziketa eredu eta balore batzuk transmititu behar zitzaizkiela, betiere herri kultura oinarri hartuta. Hori hala, Debako Arte Eskola Euskal Herri mailan gure tradizioei lotutako bost artisau ofizio eskaintzen dituen



eskola erreferentziala izan da urte luzez.

Garai bateko erreferentzialtasun hori galtzen joan da, ordea. Horregatik, egungo garaietara egokitu eta berriz ere arteari eskainitako gune garrantzitsu bat izan zedin, eskolaren etorkizunaren gaineko hausnarketa prozesu parte-hartzailea egin da azken hileotan; eta horretan parte hartu zuten hezkuntzako eta kulturako hainbat eragilek. Aldundiarekin adostuta, Artelekuko atal grafikoa Debara ekarri izana eskolaren erreferentzialtasuna lortzeko lehen urrats bezala ikusten du Udalak.

Martxoaren 25ean inauguratu zen sorkuntzan eta arte hezkuntzan oinarritutako eskola izan nahi duen zentroa. Herriarrak eskolara erakartzeko asmoz, maiatzean eskainiko ditu lehen ikastaroak (doan). Uztailean, berriz, beste ikastaro bat egongo da, profesionalagoi bideratuta.

## Ospakizun bikoitza aurten: Zuhaitz Eguna eta zumardiaren 150. urtemuga

Zuhaitz Eguna eta Debako zumardiaren 150. urtemuga ospatzeko ekimenek bat egin dute aurten. Hori dela eta, hitzordu ezberdinak burutu ziren martxoaren 26an eta 28an -Luzaroko ikasleek dunetan egin behar zuten landareen landaketa bertan behera geratu zen eguraldi txarrarengatik-.

Agirre jauregiko ispiluen gelan hitzaldia egin zen hilaren 26an. Jose Luis Albizu izan zen protagonistetako bat, eta "Gure etxe txikia. La Alameda, una cartilla de alfabetización social y arborea de 150 años (1865-2015)" liburua aurkeztu zuen bertan. Bigarren gonbidatua Jakoba Errekondo izan zen; "Mundua ezagutzuz Debatik atera gara. Mundu osoko zuhaitzak Deban" gaia hartu zuen hizpide.

Martxoaren 28an Ekobira azoka izan zen kioskoan.



Goiz erdian "Alameda sorgindua, jolastuz ezagutu ezazu" ginkana-pista jolasa egin zen (Debanaturak antolatuta). Debako zuhaitzak ezagutzeko ibilbide gidatua eskaini zuten gero Jose Luis Albizuk eta Martxel Etxanizek, eta Gernikako arbolaren kimu bat landatu zen gero zumardian bertan, aurtengo ospakizunei amaiera emateko.

## Iñigo Altuna, garaile XLII. Amaiak Bat Sarian

74 txirrindularik parte hartu zuten martxoaren 28an jokaturako junior mailako lasterketan, eta horietako berrogeik osatu zuten 86 kilometroko ibilbidea. Lehenbiziko postuan Iñigo Altuna (Buruntzapipi) sailkatu zen, 2.15.25ko denborarekin, eta sprinean egindako erakustaldiak eman zion garaipena. Bigarren eta hirugarren postuan, berriz, Gari Lagnet (VC Tarnos) eta Xabier Murgiondo (Ulma) gelditu ziren. Taldeei dagokienez, bestalde, Fullgas.org nagusitu zen. Bi emakumezko ere aritu ziren lehian, baina ez zuten lortu lasterketa amaitzea.

Proba ezusterik gabe burutu zen;



hiru bat lagun erori baziren ere, ez zen inor larri zauritu.

Antolatzaile lanetan aritutako Amaiak Bat Txirrindulari Taldeak errekonozimendua ere jaso zuen hilaren 28an. Eibarko Txirrindulari elkarteak oroigarri bat eman zien debarrei, euren lana aitortu eta bi taldeen arteko elkarlana eskertuz.

## Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo txapelketako saioa, Lasturren

Martxoaren 14an abiatu zen Gipuzkoako XLVI. Hiru Txirlo Bolo txapelketa eta ekainaren 6an Azkoitian jokatu den finalerako zenbait saio gelditzen dira oraindik. Lasturrek hartuko du, adibidez, maiatzaren 9ko (larunbata) jaurtialdia; arratsaldeko 5etan izango da. Aurrez, apirilaren 25ean Sorluzen izango da hitzordua eta maiatzaren 16an, berriz, Eibarko Asola Berriko bolatokia arituko dira lehian.








# 19. Korrika Euskahaldun!!! Eskerrik asko!





## Agenda

**Apirilak 25, larunbata**

-12:00. **Jostun Eguna.** Erabakia ehuntzen. Oihalak josi eta erakusketa plazan. Ondoren pintxoak. Gure Esku Dagok antolatutako ekimena.

**Maiatzak 1, ostirala**

-Langileen Nazioarteko Eguna.

**Maiatzak 2, larunbata**

-Erromeria Eguna Itziarren.

**Maiatzak 3, igandea**

-17:00. **Ipuin kontaketa.** Agirre jauregiko ispiluen gelan burutuko da. 17:00etan Haur Hezkuntzako haurrentzat; 17:45ean, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoentzat; 18:30ean, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailakoentzat. Informazio gehiagorako: <https://sites.google.com/site/debakokontalariak/home>.

**Maiatzak 9, larunbata**

-**Debako VII. Triatloia**, Deba-Itziar Xtreme Taldeak antolatuta. -12:00. Umeen paella lehiaketa.

**Maiatzak 14-17**

-Asentzio jaiak Endoian.

**Maiatzak 15-17**

-**Debarren Eguna.** Jai Batzordeak egitarau berezia antolatu du astebururako: giza probak, musika, danborrada, entzierroa eta sokamuturra, erraldioen konpartsen desfilea, erromeria... Ohiko bideetatik ezagutaraziko da programa osoa.

**Maiatzak 22-31**

-**XXIX. Antzerki Astea**, Goaz Antzerki Taldearen eskutik. Ikuskizun ezberdinez gozatzeko aukera izango da.

**Maiatzak 24, igandea**

-**Udal eta foru hauteskundeak.** Informazio gehiagorako, ikus aldizkari honen barneko edukia (6-9. orriak).

**Dantzaren Nazioarteko Eguna**

-Apirilaren 25ean (larunbata) ospatuko da Dantzaren Nazioarteko Eguna eta Deban hainbat ekimen egingo dira. Besteak beste, Kulunka Taldearen eskutik, eguerdiko 12:30ean barra klasikoaren erakustaldia egingo da portuko pasealekuan eta ondoren Flashmoba burutuko da Foruen Plazan. Flashmobearen parte hartzeko deialdia egin diete herritar guztiei eta saioa prestatzeko entseguak burutu dira Kulunkaren lokalean.

Txistularien alardea ere izango da, 13:30ak aldera, Foruen Plazan.

**Geoparkearen Astea**

-Maiatzaren 22tik 31a bitarte, Geoparkearen Astea ospatuko da eta ekimen ezberdinak burutuko dira. Gainera, dagoeneko abian dira Euskal Kostaldeko Geoparkearen bisita gidatuak ere. Berrikuntza bezala, Flysch Beltza deri-

tzon bisita eskainiko da aurretik, maiatzaren 3an. Bisita guztien inguruko informazio eguneratu eta osatua jasotzeko, [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com) ataria kontsultatu edo deitu zuzenean Debako Turismo Bulegora (943 19 24 52).

**Ikastaroak**

-**KZguneak** goizeko ordutegia izango du maiatzean. Hainbat ikastaro eskainiko dira, hala nola oinarrizko internet ikastaroa eta sare sozialen inguru-

koa (biak ala biak euskaraz). Informazio gehiago: [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) atarian edo 943 02 36 29 telefono zenbakian.

**Seven Clovers**  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa  
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



**Bar LOREA**

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**ZAINTZAKO BOTIKA**

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **maiatzak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.**

Burgoa Zuazo: **apirilak 27, 28, 29, 30.**  
**maiatzak 15, 16, 17.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

**DEBAKO BOTIKAK**

**ZALDUEGI: 669 262 201**

**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 2 eta 9

BURGOA ZUAZO: apirilak 25  
maiatzak 16 eta 23

**9:30 - 13:30**



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**JOSE A. GALDONA  
AIZPURUA**

**HORTZ-SENDAGILEA**  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba



Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



**KORREO BIDEZKO BOZKA EMATEKO EPEAK  
HAUEK DIRA:**

**Martxoaren 31tik Maiatzaren 14ra**

Zu edo zure inguruko norbaitek korreo bidezko bozka emateko asmoa badu, jar zaitez gurekin harremanetan astearte eta ostegunetan 6etatik 8etara 943-191189 telefonoan edo pertsonalki etorri Arrano Elkartera.




**SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK**

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net



Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



# Ignacio Zuloaga Institutua

Eibar

Ate irekien eguna

**Apirilak 29**

Ordua 18:00

## ARTE BATXILERGOA

## A eta D ereduetan

### Ikasleen lanen erakusketa

## Portalean

Apirilak 17 - Maiatzak 3



Jardiñeta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net

# Elgoibar Arreiturre BHI 2015-2016 ikasturtea



Elgoibar Arreiturre BHI  
Arregitorre 2  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: [013431aa@hezakuntza.net](mailto:013431aa@hezakuntza.net)  
[www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)

**BATXILERREKO ESKAINTZA**

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA

GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

**AURREMATRIKULAKO DATAK:**

**MAIATZAREN 4TIK 14RA**

GURASOENTZAT BILERA IREKIA:

APIRILAREN 28AN, ARRATSALDEKO 18:00ETAN MENDATA IKASTETXEAN

